

## **Laburpena**

Gure emakumezko ikasleriaren zati bat unibertsitatean sartuko da eta ikasketak etorkizuneko lanbidean pentsatuz aukeratuko ditu, baina ez dirudi generoak aukeraketan eragina izango duenik. Litekeena da gure emakumezko ikasleek berdintasunaren ilusioa bititzea eta desberdintasunaren iruzurra sendotasunez ere eztabaidatzea. Unibertsitateko ikasketak amaitzen dituztenean, baliteke berdintasunaren ilusio horretan murgilduta jarraitzea baina, bititza profesionalarekin topo egin ahala, konponbiderik ez dagoela onartu ere egingo dute. Lanean ari diren bitartean ohartzen dira; orduan hartzen dute kontzientzia.

Hainbat teknologia zentzorekin batera egindako proiektu baten harira, kontzientzia nola hartzen den landuko dugu. Ildo horretan, gure proposamena proiektua Batxilergoko ikasgeletan jorratu eta nesken eta mutilen jarrera aztertzea da.

Batxilergoan generoaren auzia zein egoeratan dagoen alabaren eta haren inguruko bidez dakit hobekien, eta errealitate hori hain hurbil izateak eskandalizatu egin nau. Izan ere, eskandaluzkoa da DBHko lehenengo mailako ikasleek *Billy Elliot* filmaz eztabaidatzea ikasgelan eta eztabaidaren mailarik sakonena dantzariak maritxuak diren ala ez izatea. “Ama, ez dira ezertaz konturatzen, ez dira ezertaz ohartzen”, esaten dit 12 urteko alabak. Hitz horiexek zuzen laburtzen dute gertatzen dena.

Giro feministan besterik ez bada ere, asko hitz egin da, eta irudipena hedatuta ere dago, eskolak patriarkatuak bere horretan jarrai dezan eragiten duela. Arazoa hori baldin bada, zein da arazoaren muina? Bada, arazoaren beraren ikusezintasuna: ikusten ez dena ez da existitzen eta, existitzen ez denez gero, existitu egiten den eztabaidatzen da eta, existitu egiten ez dela eztabaidatu ahala, are argiagoa da existitu egiten ez dela. Ondorioz, arazoa (ikusezintasuna) zelulak ugaltzen diren bezala handiagotzen da, eta

**etengabeko soka hori eteteko bide bakarra gertatzen dena ikusaraztea da; ildo horretan, eskola (besteak beste, jakina) oso leku egokia da.**

Nire planteamenduaren abiapuntua ingeniaritza eskolan unibertsitateko irakasle gisa izan dudana esperientzia da. Ingeniaritzak kutsu maskulinoa du berez. Zaila da azaltzen, eta ez da politikoki zuzena halakorik onartzea jendaurrean, baina onartu beharra dago ingeniartzako ikasketek neskak atzera eragiten dituen zerbait dutela. Horren frogarik adierazgarriena Informatika ikasketak izenez aldatu eta Informatika Ingeniaritza bihurtu zirenean jazo zen: ordura arte, emakumeak matrikulatzen ziren gehienbat baina, bat-batean, nesken matrikula kopuruak behera egin zuen eta joera hori alderantzikatu egin zen, izena besterik aldatu ez zen arren.

Egoera horri aurre egitearren, neskak erakartzeko moduak bilatu dira. Zehazki, Informatika Ingeniaritzako emakumezko irakasle batek gure taldera jo zuen, kezkatuta zegoelako nesken matrikulen ehunekoa zela-eta; auzia aztertu nahi zuen, eta horretan dabil oraindik ere.

Dena dela, gure mintegian egin genuen analisian mutilak nagusi diren ikasketetan neska eta mutil kopuruaren arteko berdintasuna bilatzeaz gaindi zegoen. Izan ere, zertarako nahi dituzte neskak? Betetzen ez diren tokiak betetzeko? Komeni al da neskek halako tokiak betetzea? Danborradan bezala, neskek mozkortzen diren eta gutxieneko diziplinari (taldean jo beharri) jaramonik egiten ez dioten mutilei dagozkien toki hutsak bete behar al dituzte? **Susmatu egin behar da gizonezkoek erre dituzten eremuetara neskak erakarri nahi izateaz.**

Solasaldi hauek prestatu genituen lan saioetan, Rosa Andreuk ideia bat proposatu zuen, eta horixe azalduko dut nik oraintxe: berdintasun adierazle estatistikoek besterik ez finkatzea estatuetako aurrekontuak. Izan ere, **berdintasunaren ilusioa da hori ere. Paradoxikoki, desberdintasunaren aurka borrokatzen diren eragileek elkartu eta arazo erreala/errealak ezkututzen dute/dituzte. Ez diote/diete errotik heltzen, ez dute ikusi nahi non datzan/dautzan. Ikusezintasunaren eskema errepikatzen da orduan.**

Egiteke dagoena egin eta inkesta egingo bagenie gure emakumezko ikasleei, mutilak bezala tratatzen dituztela esango lukete; balio baduzu, aurrera egingo duzula, neska ala mutila izan; helduen, emakumeen kontua dela hori. Hala ere, une jakin batean

helduek, emakumeek arrazoi dutela sentitzen dute. Batzuek ez dute inoiz onartzen eta, ahal badute, erle erregina bihurtzen dira. Beste batzuek, berriz, konponbiderik ez dagoela onartzen dute, egoera horixe dela eta ezin dutela ezer egin; akituta daude; hainbeste borrokatu dira, hainbeste energia ahitu dute generoagatik gehiago ahitu behar zutela jakin gabe, ezin dute gehiago. Azkenik, bada jardunean militante bihurtzen denik: okerrago bizi da, baina pozik eta zoriontsu.

Proiektuaren harira izan nuen esperientziarik interesgarriena emakumezko zientzialari eta teknikari gazte talde handi baten *coaching* prozesuan parte hartzea izan zen. Guztiek graduko ikasketak zituzten gutxienez, eta hainbat teknologia zentrotan zebiltzan lanean. Halere, honako hauek hobetzen ahalegindu ginen: norbere buruarekiko konfiantza, norbere buruaren gaineko kontrola, zintzotasuna, konpromisoa, norbere helburuak lortzera bideratzea, ekimena, enpatia, talde lana, eragina eta komunikazioa. Bitxikeria gisa, esan beharra dago norbere buruarekiko konfiantza izan zela gehienek helburua.

Proiektua amaitu zenean, proiektuaren zuzendarietako batekin mintzatu nintzen, eta izan zuen eraginaren garrantziaz ohartu nintzen: berdintasuna ilusioa delako kontzientzia hartzeko balio izan zuen. Zioenez, “hunkitu egin nau. Lehen, zortea ez zela existitzen pentsatzen nuen, nork merezi zuena zuela, baina, honi guztiari esker, ezetz ikasi dut; ikasi dut guztiok aukera berberak ditugulako kontu hori gezurra dela”. Egindako lanarekin pozik zegoen, proiektuak itxuraz hain berdintasunezkoa den alorra (teknozientzia) hunkitu izanarekin.